

URKIOLA'KO ERROGATIBAK

Urkiola'ko Santutxuak. — Urkiola'k, bere santutegiaz gaiñera, iru santutxu daukaz aren inguruan: Santa Apolonia deritxona, Araba aldera begira; Santo Kristona, iru gurutzetarako bidean; eta San Antoniona, bide nagusiaren ondoan. Eskabadora batek jota, jausi zan, orain urte gitxi.

Antxiñako arrikaltzada zaarrak lotzen ditu iru santutxu oneek euren artean, eta areen buru gaiñetan dagoan Santutegi nagusiaz.

Errogatibak. — Errogatibak izaten dira Urkiola'n, bagillan asi ta dagonil azkeneraiño. Aramaxo'ko ibarrak emoten dautse asiera, bagillaren lenengo larunbatean; eta Abadiño'ko erriak amaitzen ditu, dagonillaren azkeneko larunbatean.

Ingruetako erriak bakarrik datoz orain; baiña, askoz geiago etozan leen. Oiñez etorri gaiñera. Araba aldekoak, Otxandio'ko bide zaarretik; Gipuzkoa aldekoak, Atxarte'ko kaltzadatik; eta Bizkaikoak, Mañari'ko kaltzada zaarretik.

Oiñez eta oiñutsik etorri be, euren abadeak buru eukezala. Santutxura eldu, ta itxoin-aldi bat egiten eben, danok batu arte. Gero, oiñetakoak jarri, abadeak eliz-soiñekoak jantzi, ta eliz-mutillak parroikiko gurutzea artu, ta Letaniak kantari etozan kaltzadaren luzearen luze, santutegira sartu arte.

Santutegian lenengo autortu, ta Meza nagusia gero, organu-soiñu alai ta abesti ederraz jantzi ta ospatuaz. Eta sakristiara, urren, etxean ildako guztien alde Meza bana eskintzera.

Erriko ardaoa.—Erri osoak artzen dau parte, euren agintariak buruko daukezala. Eta erriaren kontura izaten da bazkaritan edaten dan ardao gutzia. Bai, an jartzen da erriko mutilla, bere zaragi andiaz, eliza osteko zabaldian; eta ar doa etxe baktokako mutikotxua bere pitxarra eskuetan, ardao eske.

Bake santuan eta eliza inguruko pagopean, taldeka, bapo bazkaldu, ta arratsaldeko elizkizuna amaituta, an biurtzen dira gero euren etxetara, kanta ta soiñu, santzo ta salto.

Izurritea.—Arratia ta Abadiño'ko errogatibak izaten dira jantzi ta ospetsuenak. Euren bertsolari, txistulari, albokari ta dantzariakaz datoz geienetan. Euren San Erroketxuren irudiaz datoz Abadiñotarrak, lau morroskoen lepoan.

Izurriaren okerren aurkako zaindaria dozu Erroketxu santua. Eta diñoenez, ikaragarritzko izurritea sortu ei zan emen orain berrogeitamar urte.

Urkiola'ko San Antoniori egin ei eutsoen promesa, izurri artatik libratzen baeutsoen, urtero-urtero etorriko zirala Urkiola'ra Errogatibetan. Eta ordutik ona sortu ei zan Errotiben oitura au.

Ori da erriaren esamesa. Baiña, askozaz zaarragoa de oitura au. Emen, Urkiolan egin zan lenengo ermitaren arokoa, orain milla bat urte, arean.

ESTONBA' tar Manuel.